



Neskaak be bizikletan

Sarritan ekarri izan dittugu sail honetara bizikletiarekin zerikusixa dakoin fotografixa zaharrak. Karreristenak aixkamente, baiña bestelakuak be bai batzuetan: esate baterako, bizikletia lanerako edo pasiorako ibilgaillu moduan ebalten zanakua. Hori bai, argazki horreittan gizakumiak agerketan ziran gehixenetan: gizon helduak, mutil gaztiak edo mutikuak; emakumiak nekezago. Baiña horrek eztau esan gura andrazkuak bizikletan ibilten etzirarik.

Gizonezkuenak baiño pittin bat beranduago izan arren, emakumientzako bizikletan be 1920ko hamarkadarako zabaldu ziran gure artian. Bazittuain, hala eta be, desbardinttasun batzuk: ez eukain goiko kuadrorik eta atzeko erruberia sare moduko batekin babestuta egoten zan alde bixetatik. Kuadruarena zergatik zan garbi dago: garai haretan, eta orainddiok beste berrogeta hamarren bat urtian, etzan onarketan emakumiak frakak eruatia. Gonak jantzi bihar ziran derrigorrez, eta honeik urte hareittan dezente moztu baziran be, fraka-kontua zineko artistentzako bakarrik geraketan zan. Sariarena, berriz, lokatzara eta txipistiñetatik babesketako eta dotoretasun-ikuttu bat emuteko be izan zeikien.

Gerra aurreko urtietan asko ugaritu zan bizikletia, batez be eibartarrak apurka-apurka armagintzaiari itzi eta bi txirringatako ibilgaillu honeik egittiari ekin otsaiñetik. Orduan hasi ziran ezaguketan inguru honeittan eta beste leku batzuetan Eibarko **BH**, **GAC** eta **Orbea** bizikelta-markak. Dana dala, merkiak eztziranez, gutxik erosi ahal izaten eben kapritxoz, lanian ezpaziharduan behintzat. Gaztetxuen artian askotzarik ez, baiña batzuk baziran orduan be. Hona hemen adibide bat: sasue haretako modelo politt bat erakusten dosku neskatilla-talde honek ixa lauorgei urte eukiko dauen fotografixa honetan.

Kuadrillako lagunak ondorengo honeik dittuzue ezkerretik eskumara: **Arantxa Galarza**, Bakardadeko Ama kalekua; **Rosa Azkunaga**, Kale Zaharrekoa; **[X.] Olalde**, Kale Barrixan bizi zan Felix Olalde abadiaren illoba donostiarra (?); **Maria Luisa Zubiagirre**, Kale Barriko *Pullangua*; **Maritxu** edo **Karmen Urreztieta** (?), hau be udatan etorten zan Kale Barriko euren etxera; **Margarita Iturmendi**, Kale Barriko *Naparrenekoa*; **Alizia [X.]**, Kale Zaharrekoa (?); eta **Miren** eta **Edurne Galarza**, Bakardadeko Ama kaleko ahizpak. Ia dudak argiketan lagunketan doskuzuen.

J. E.

Argazkixa Luis Codina, plazako erretratistiak ataratakua da eta guri Iñaki Ormazabalek eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Pilar Barrena, Margarita Iturmendi, Andina Arrazola eta Tere Etxanizeri zor dostegu. Milla esker danoiri!